



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Langileen lan poltsak arautzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak zuzentzea.

Iragarkia, Bermeoko Udalarena, Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Langile lan poltsak sortzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak zuzentzea.

2024ko urtarrilaren 24ko 416. Alkatetza Dekretu bidez honakoa xedatu da:

AURREKARIAK

Lehenengoa: 2023ko irailaren 1ko 2023/3476 Alkatetza Dekretu bidez Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Gizarte langileen lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak onartu ziren.

Bigarrena: Akatsak zeudela ikusita, 2023ko urriaren 20eko 2023/4401 eta 2023ko abenduaren 21eko 2023/5313 Alkatetza Dekretu bidez, zuzenketa horiek egitea onartu zen.

Hirugarrena: 2023/4401 Alkatetza Dekretuan tasaren ordainketa egiteko moduan akatsa dago eta zuzendu egin behar da.

ARGUDIOAK

Lehenengoa: Aipatutako 4401. Alkatetza Dekretuan honako akatsak egon direla egiaztatu da: Gizarte langileen oinarri espezifikoan «Bigarrena: hautagaien betekizunak» 5. Atalean tasen ordainketa egiteko moduan:

«Tasa horren ordainketa modu hauetan egin daiteke: Ordainketa-pasabidearen birtatez, Bermeoko Udalaren webguneko lotura honetan http://www.bermeo.eus/ordainketak_online»

Tasaren ordainketa egiteko esteka ez da zuzena eta oinarrietan zuzenketa hori egitea beharrezkoa da. Hori dela eta, zuzenketa hori onartu beharra dago.

Eta horren gainean, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 109.2 artikulua, zera jasotzen du «Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos».

Beraz, artikulua horri jarraiki, akatsa ofizios zuzendu daiteke eta horrela egin behar da.

Bigarrena: Aipatutakoa kontuan izanda, zuzenketa hauek egin behar dira «Bigarrena: hautagaien betekizunak» 5. Atala «Tasak» bere osotasunean horrela geratuz:

«Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa esku-bideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

20 eurokoak izango dira, Agiriak emoteagaitik ordaindu beharreko ordenantzak arautzen dauen 2023ko Ordenantza fiskalaren arabera.

Hautaketa prozesuan izena emotean, tasa ordaintzeko beharrezkoak sortzen denez, erregistro orokorretik eskaria aurkeztean den unean, tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontuan edukiko eta deialdiatik kanpo geratuko da izangaia.

Behin hautagaiak izena eman eta tasa ordaintzen badu, nahiz eta deialdiaren baldintzak ez bete, ez zaio ordaindutako tasa itzuliko.

Tasa horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:

- Ordainketa «Autokitapenak» ataletik egin behar da, Bermeoko Udaleko Egoitza elektronikoko lotura honetan: Egoitza Elektronikoa (bermeokoudala.eus)
- Txartelaz, arreta zuzeneko Berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.



- Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.
- Banketxeetan.»

ERABAKIA

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki da:

Lehenengoa: Gizarte Langileen lan poltsa arautuko duten hautaketa prozesuko oinarrien «Bigarrena.- hautagaien betekizunak» 5. Atala «tasak» ordainketa egiteko modua zuzentzea:

— *Honakoa hartzen duen lekuan:*

«Tasa horren ordainketa modu hauetan egin daiteke: Ordainketa-pasabidearen bitartez, Bermeoko Udalaren webguneko lotura honetan: http://www.bermeo.eus/ordainketak_online.»

— *Honakoa jartzea:*

Ordainketa «Autokitapenak» ataletik egin behar da, Bermeoko Udaleko Egoitza elektronikoko lotura honetan: Egoitza Elektronikoa (bermeokoudala.eus).

Bermeon, 2024ko urtarrilaren 24an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly



SECCIÓN II ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Ayuntamiento de Bermeo

Corrección de las bases que regirán el proceso selectivo para la constitución de las bolsas de trabajo de Trabajadores Sociales de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Bermeo.

Anuncio del Ayuntamiento de Bermeo para la corrección de las bases reguladoras del proceso selectivo para la creación de las bolsas de trabajo de Trabajadores Sociales de Servicios Sociales.

Por Decreto de Alcaldía número 416 de 24 de enero de 2023 se establece lo siguiente:

ANTECEDENTES

Primero: Mediante Decreto de Alcaldía número 2023/3476, de 1 de septiembre de 2023, se aprobaron las bases que han de regir el proceso selectivo para la constitución de la bolsa de trabajo de Trabajadoras y Trabajadores Sociales de los Servicios Sociales de Base.

Segundo: Visto que había errores en el Decreto de Alcaldía número 2023/4401, de 20 de octubre de 2023 y 2023/5313, de 21 de diciembre de 2023, se aprobó su corrección.

Tercero: existe un error en el Decreto de Alcaldía 2023/4401 en la forma de proceder al pago de la tasa y, por lo tanto, se debe proceder a su corrección.

ARGUMENTOS

Primero: En el Decreto de Alcaldía número 4401 se han constatado los siguientes defectos: «Segundo: requisitos de los candidatos» punto 5 de las bases específicas. Forma de pago de las tasas en la Sección:

«El pago de esta tasa se puede realizar a través de la Pasarela de Pagos en este enlace de la web del Ayuntamiento de Bermeo http://www.bermeo.eus/ordainketak_online»

El enlace para realizar el pago de la tasa no es correcto y es necesaria dicha corrección en las bases. Por ello, procede aprobar dicha corrección.

A este respecto, el artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo General de las Administraciones Públicas, recoge que «Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos».

Por tanto, en virtud de dicho artículo, el error puede y debe ser subsanado de oficio.

Segundo: Teniendo en cuenta lo expuesto, procede realizar las siguientes correcciones en el apartado «Segundo: Requisitos de los candidatos» punto 5. «Tasas» quedando dicha sección en su conjunto como sigue:

«Tasas: pago de la tasa por derechos de examen establecida en la vigente ordenanza fiscal del Ayuntamiento de Bermeo, dentro del plazo de presentación de solicitudes.

Serán de 20 euros, según la Ordenanza Fiscal 2023 que regula las Ordenanzas de pago por entrega de documentos.

La inscripción en el proceso selectivo dará lugar a la obligación de pago de la tasa, por lo que, en el momento de la presentación de la solicitud desde el Registro General, deberá acompañarse la justificación del pago de la tasa. En todo caso, la solicitud no será tenida en cuenta y el aspirante quedará excluido de la convocatoria.

Una vez inscrito el candidato y abonada la tasa, aunque no se cumplan los requisitos de la convocatoria, no se devolverá la tasa abonada.

El pago de esta tasa podrá efectuarse de las siguientes formas:



- El pago se realizará desde el apartado de “Autoliquidaciones” en el enlace de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Bermeo: Sede Electrónica (bermeokoudala.eus).
- Con tarjeta, en la oficina de atención directa de Berza: Calle Ertzilla, 6-8.
- En metálico, en la oficina de recaudación: calle Intxausti, 2.
- En los bancos.»

ACUERDO

Por lo expuesto anteriormente, se acuerda lo siguiente:

Primero: Corregir el apartado «Segundo: Requisitos de los candidatos» punto 5. «Forma de pago de las tasas» de las bases del proceso selectivo que regirán la bolsa de trabajo de Trabajadores Sociales quedando de la siguiente forma:

– *Donde se establece*

«El pago de esta tasa se puede realizar a través de la Pasarela de Pagos en el enlace de la página web del Ayuntamiento de Bermeo

http://www.bermeo.eus/ordainketak_online».

– *Poner lo siguiente*

El pago se realizará desde el apartado de «Autoliquidaciones» en el enlace de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Bermeo (bermeokoudala.eus).

En Bermeo, a 24 de enero de 2024.—La Alcaldesa, Nadia Nemeah Shomaly